

Osoko bilkura

Iruñean, 2013ko irailaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lizundia, Jose Luis
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso, Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jaber Kaltzakortak ahala Adolfo Arejita-

ri; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Beñat Oiartzabalek ahala Xarles Videgaini; Ibon Sarasolak ahala Pello Salabururi; Joan Mari Torreldaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Uribarrenek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Iruñeko Udaletxean, ezkerreko zutabea ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatu eta gero, iraileko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

Hasteko, euskaltzainburuak Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren eta euskaltzain osoaren heriotzaren berri eman eta haren senideei Akademiaren doluminak bidaltzea proposatu du. Osoko batzarrak proposamena onartu du.

Era berean, Jabier Kaltzakorta jaunaren gutuna jaso dela jakinarazi du euskaltzainburuak. Idatzian, euskaltzain-izendapena onartzen duela eta euskaltzain oso izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela adierazten du.

Ondoren, bilera-deian ageri diren puntuak eta gaiak jorratu dira.

1. Aurreko Osoko batzarraren (2013-07-19) akta onartzea, hala erabakiko balitz

J. L. Lizundiak behin-behineko bilera-agiriko 2. orrialdeko «... Barne-erregelen 65. eta 68. xedapenen... finkaturiko gehiengo osoa eskuratzeko» zatia honela jasotzea eskatu du: «... Barne-erregelen 65. eta 68. xedapenen ondorioei buruz J. L. Lizundiak dio 14 boto behar direla Arautegiak eta Barne-erregelen finkaturiko gehiengo osoa eskuratzeko. Iritz berekoak dira beste euskaltzain batzuek ere. Beste batzuen iritiz, ordea,...». Halaber, 3. orrialdeko «Horren ondoren...» paragrafoaren amaieran berak idatziriko ekarpenean jasotako galdera ikurrak ezabatzea eskatu du. Paragrafo honekin zein hurrengoarekin paragrafo bakarra egin dadin eskatu du. Amaitzeko, 4. orrialdean, «95. artikulua dela eta,...» hitz bat falta dela esan du, ondoko hau: «... bere horretan uzteko eginiko iruzkina...».

Era berean, 5. orrialdean, azaroaren 28an dioen tokian, 29a eta, azaroaren 27an dioen tokian, ordea, 28a azaldu behar direla esan da.

Eginiko zuzenketa guzti-guztiak onartu dira Osoko bilkuran.

2. Antroponimiaren (eta mitonimiaren) aurkezpen orokorra

X. Kintanak gaiaren premia azpimarratu eta aurkezpen laburra egin du, irudiz erabilera oso mugatua duten hitz berezi horiek irakaskuntzan, testugintzan eta entziklopedia eta dibulgazio-lanetan adibidez, kultura-hizkuntza guztietan ezinbestekoak direla gogoratu. Ondoren, Exonomastika batzordeburuak hitza Alfontso Mujika batzordeko idazkariari eman dio, beronek proposamenaren xehetasunak eskaini ditzan. Euskaltzainen artean banatu den 11 orrialdeko testuari jarraikiz, A. Mujikak oraingo zerrenda honen helburuak, lan egiteko metodologia eta hautapena egiteko irizpideak azaldu ditu, bai eta aurrera begira kontuan hartuko diren historialdi eta eremu geografikoak ere, horietatik, pausoz pauso, izenik garrantzizkoenak aztertu eta proposatzeko. Hasteko, honako hauek azpimarratu ditu:

- Antzinateko ekialdea (I) (Brontze Aroa eta Goiz Burdin Aroa): Mesopotamia (21 izen).

- Mesopotamiako mitologia: Antzinateko pertsona-izenak (II): Mediako Inperioa (K.a. 728-549) eta akemenestarren Inperioa (K.a. 550-330); Antzinateko pertsona-izenak (III): Egipto.
- Egiptoko mitologia: Antzinateko pertsona-izenak (IV): Egipto; Antzinateko pertsona-izenak (V): Judea eta Israel; Antzinateko pertsona-izenak (VI) Itun Zaharreko pertsona-izenak; Antzinateko pertsona-izenak (VII): Itun Berriko pertsona-izenak

3. Antzinatea (I): Mesopotamia (Sumer, Akad, Asiria, Babilonia). Pertsona-izenak eta mitologia araua aurkeztea

Aurreko puntuari segida emanez, aipaturiko zerrenda horretako lehen multzoa aurkeztu du A. Mujikak, hots, Sumer, Akad, Asiria eta Babiloniako erregeena. Horien izenak transkribatzeko, orduko Mesopotamiako hizkuntza nagusiak zeintzuk ziren gogorarazi du, bai eta guregana orain arte nolako tradizioez heldu diren ere (Bibliako hebreera, greziera, latin eta espainol eta frantsesetik). Ondoren, ikerketa berrien arabera, haiekin erabiltzen zen idazkera kuneiformearen argitan, jatorrizko hizkuntza horien egiako fonetikaz gaur dakiguna azaldu du, dibulgaziozko eta zientzia mailako lan jasoagoetarako proposamenak eginez, eta zerrendako izen konkretu batzuen berezitasunak nabarmendu ditu.

Hitza euskaltzainen esku utziz, idazkera kuneiformearen transkripzioa dela eta, M. L. Oñederrak, bokalen kasuan, lapsus bategatik, «i» bokala bi aldiz ageri dela ohartarazi du, azkena «u» dela seinalatuz. J. L. Lizundiak Siriako egoera berezia azaldu nahi izan du, hor behialako menekotasun kolonialaren indarrak frantses grafiek izandako eragina azpimarratzeko.

P. Charriton «j» grafari Hegoaldeko batzuek ematen dioten espainol balioaren aurka mintzatu da. Euskaltzaindiak «j» grafiarako aspaldian hobetsia duen ahoskera zein den gogoratu zaio.

Puntu honekin amaitzeko, oharrak, idatziz, urriaren 31rako bidaltzea erabaki da.

4. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko Gramatika batzordearen 2013-2016 aldiko plangintzari eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

Lehenago egin ziren oharrak banatu dira euskaltzainen artean. A. Urrutiak euskaltzainei jakinarazi die EHUko webgunean, ikertaldearen eremuan, agertzen dena. Izan ere, bertan Euskaltzaindiak garatzen dituen egitasmo eta batzorde batzuek ager-

ri dira, EHUko egitasmoak balira bezalaxe. Hori Euskaltzaindiaren baimenik gabe egin dela adierazi du eta arazoak ekar ditzakeela, jabetza intelektualaren aldetik.

M. Azkaratek esan du horrek ez dakarrela inolako eskubide uzterik. EHUko webgunean ageri baita taldea (grupo) Comisión de Gramática de la Real Academia de la Lengua Vasca dela. P. Salaburuk gauza bera uste du. A. Urrutiak hori Unibertsitateko errektorearekin argitu nahi luke. Irtenbidea EHUrekin hitzarmen bat sinatzea dela uste du. P. Goenagak galdetu du hitzarmenetan ikerketen gaia nola ageri den.

Ondare intelektuala ere argitu eta zehaztu beharko litzatekeela azaldu da.

M. L. Oñederrak esan du EHU-UPVko webgunean ageri den informazio hori ikerketa merezimenduz ari dela eta ez duela esan nahi inoren ondaretik ezer kentzen denik. A. Sagarnak nahastea *grupos* hitzak sorrarazten duela uste du, eta hor *proyectos ajenos en los que participan miembros de esta universidad* gisako azalpena erantsita arazoa konponduko litzatekeela azpimarratu du.

E. Osak esan du elkarteekin, erakundeekin eta unibertsitateekin izenpeturiko lankidetzak hitzarmenetan sinatzaileek ikerketa proiektuak garabidean jartzeko aukera dutela jasotzen dela. Xedapen hori kontuan hartuz, izenpetzaileek urtez urte finkatu behar dituzte ikerketa-egitasmoak, bai eta elkarrekin argitaratuko dituzten lanak, alde bakoitzak egingo duen ekarpen ekonomikoa barne.

Ondoren, eztabaida talde-eragilearen figura eta zereginetara lerratu da.

P. Zabaletak eskatu du A. Sagarnaren testua (grupos-i buruz) eranstea. Batzorde batek ezin dezake arauemaile maila izan, Euskaltzaindiaren ordezkarri gisa baizik.

A. Urrutiak legelarien arteko akordioa behar dela uste du, baina, edonola ere, talde eragilea ezin dela arauemaile izan. M. Azkaratek esan du ez zaiola Euskaltzaindiari eskumenik kendu nahi izan.

P. Salaburuk lau euskaltzainek paraturiko idazkia irakurri du. Ondoren A. Urrutiak bere erantzuna ere irakurri du, argi utzirik hori bere izenean egiten duela, eta ez euskaltzainburu gisa.

P. Goenagak bi gauza adierazi ditu. Batetik, hor interes gatazka bat dagoela uste du, eta, bestetik, ez deritzo zuzen euskaltzainburua moderatzaile izateari. A. Urrutiak adierazi du batzarburu izateari uzteko ez daukala arazorik.

P. Salabururen ustez, A. Urrutiaren oharrak ez dira ñabardurak, batzordearen orain arteko lana hausten dute, bai helburuetan, eta bai lan egiteko prozeduran

sartzen delako. Gainera, EGLUko eta Jagoneteko datuak batzordeari ukatu zaizkiola deitoratu du.

M. Azkaratek esan du ez dela egia batzordeak gainerako euskaltzainak informazioz gabe eduki dituenik.

A. Urrutiak adierazi du EGLUren testuak ez zaizkiola batzordeari inoiz ukatu. Kezkagarria deritzo, bestalde, P. Salaburuk esandakoari, eta galdetu ere egin du ea batzordekideek ordu libreetan egindako gramatika behar al duen Euskaltzaindiak, ala horri begira etengabeko lanean eta lehenbailehen atera beharko dena. Diru publikoa erabiltzen den neurrian, erantzukizunez jokatu beharra dagoela gogorazti du.

Batzordearen osaketa dela eta, P. Salaburuk adierazi du Gramatika batzordeak ez duela jende berririk nahi, ez baitu ikusten horren premiarik.

A. Urrutiak esan du Gramatika batzordeak bere lanarekin segi dezakeela, baina, horrez gainera, orain arteko martxa ikusita, jendearen eguneroko premiei ere erantzun behar zaiela eta Euskaltzaindiak eginkizun hori duela. Halaber, informazioa ematea dela eta, bere sasoian Gramatika batzordeburuari abian dagoen gramatika argitalpenaren aurkibidea euskaltzainei eskuratzeko eginiko eskaria zergatik ez zaiola erantzun galdetu du. Izan ere, aurkibide hori behar-beharrezkoa da zer egin nahi den zehazki jakiteko eta Osoko bilkura horren jakitun geratzeko.

E. Osak Jagonetaren egoeraz informazioa eman du. Webgunean ageri diren galderak zein erantzunak txukuntzeko eta eguneratzeko prozesua abian dago.

P. Salaburuk adierazi du berak erabaki zuela gramatika argitalpenaren aurkibideari buruz eskatzen zitzaion informazioa ez ematea.

M. Azkaratek Gramatika batzordea urtean bi edo hiru aldiz elkartzen denez gero, talde eragilearen lanaren garrantzia nabarmendu du. Izan ere, Gramatika batzordearen lana errazteko ezinbestekoa baita talde eragilearen ekarria.

X. Videgainek arauemaile den beste talde bat nahi du. P. Salaburuk ez dakusa hori posible, aurreikusiriko lanak eginkizun dauden bitartean.

A. Urrutiak eskatu du berak egindako proposamena banatzeko eta irakurtzeko baimena. Osoko bilkurak horrela onartu du.

A. Urrutiak irakurririko testuaren harira, P. Salaburuk adierazi du proposamen horrek egitekoak kentzen dizkiola Gramatika batzordeari, ez deritzo onuragarri, ez eta posible ere. A. Urrutiak, ordea, nahitaezkoa dakusa *Euskara Batuaren eskulibu-*

rua izango denari ekiteari, bestea, alegia, Gramatika Batzordeak egin asmo duen hori errespetaturik ere.

P. Goenagak presakako bidean, kontuak behar bezala aztertu eta ikertu gabe eginez gero, arriskuak ikusten ditu eta EIMAKo bi adibide hartu ditu hizpide («inperatiboak beti aditzaz hasten OMEN dira»). M. Zalbidek EIMA dela eta, hastapenetik izan duen eginkizuna eta egin dituen ekarpenak azaldu ditu. Izan ere, behar gorri bati erantzuten saiatu da EIMA eta sasoi bateko astakeriak bideratzeko prozedurak-eta jarri ditu abian. Halaber, askotariko materialek gutxienekoak bete ditzaten oinarriak ere ezarri ditu, besteak beste kalitatea bermatzeko prozedurak abian jarriz. Era berean, materialak aztertzen dabiltzan aztertzaileen berdintzaioak ere egin ditu EIMAK. Horiek horrela, gaur egun argitara ematen diren materialen mailak oso gora egin du azken urteetan, eta ez dute bestelako hizkuntzetan argitaratutakoen inbidiarik, berriki egin den azterketa batek erakusten duen bezala.

J. B. Coyosek, Ipar Euskal Herritik ikusita, euskara erabiltzen dutenen egunero ko premiak hor daudela eta ez direla ahanztekoak azpimarratu du.

P. Zabaleta J. B. Coyosen kezkaekin bat dator. EGLUren lorpenen artean zalantzarik gabe gramatika-terminologia finkatzea izan dela ohartarazi du.

E. Osak adierazi du EIMA zegoen behar bat erantzuten ahalegindu dela eta Euskaltzaindiak ere erabiltzaileen (argitaletxeak, kazetariak, irakasleak eta abar) beharrei erantzuten saiatu beharko lukeela, eta hurreko Euskaltzaindia eskatzen dutela euskara-erabiltzaileek.

A. Sagarnak adierazi du behar hori sentitzen dutenek eskertzen dutela araua eta beharrezkoa ere badela. X. Videgainek, ostera, zalantza-eremu bat beti irekia utzi behar dela azpimarratu du.

M. Azkaratek EGLUko hizketa estratosferan dabilen galdetu du. Halaber, oinarritzko terminologia beharrezkoa dela deritzo.

P. Goenaga Gramatika batzordeaz esandakoaz, itxia delako baieztapena, kezkatua azaldu da.

A. Iñigok Gramatika batzordeak orain arte egin duen lana miresgarria dela esan du. Nolanahi ere, uste du Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle gehientzat EGLU lanak ez direla eskuliburu praktikoak. Bere iritziaren arabera, bai irakasle horiek, bai euskal gizartea orokorrean, Euskaltzaindiak azken hamabi urte hauetan eman ez dituen gramatikari buruzko arau praktikoan edo gramatika arauemaile praktiko baten esperoan daude. S. Alemanen arabera, askok ikusten dute gramati-

ka txiki baten beharra. Adibideak eta ereduak jarri beharko lirateke, esaten dena aringarri eta ulergarri gerta dadin.

A. Urrutiak Gramatika batzordeak aldirako programa xehatuagorik Osoko bilkurara ekar dezan proposatu du. Halaber, Euskara Batuaren eskuliburua (EBE) ere zehatzago ekartzeko konpromisoa ere hartu du. Uste du bi-biak bateragarriak direla. Nolanahi ere, koordinazioaren premia nabarmendu du eta bere burua eskaini du Gramatika batzordearen hurrengo bilkurara joateko, eta kideei adierazteko eta azaltzeko bere proposamena. P. Salaburuk ez du uste hori egingarria denik. P. Goenagak eskatu du aukera ematea beste proposamen bat aurkezteko berek dena egin ahal izateko.

J. L. Lizundiak idazkari akademiko karguaz eta Gramatika batzordeko kide batera izateaz honako hau argitu nahi du: idazkari karguaz ez dela ondorioztatzen batzorde horretako edo besteko izateko meriturik, izan daiteke beste edozein euskaltzainen maila berean. Horiek horrela, galdetu du A. Urrutiak aurkezturiko bi proposamenetatik zein den proposatzen dena.

M. Azkaratek uste du berek dena aurreikusi dutela beren programan.

P. Salaburuk, bestalde, adierazi du ezin diola batzordeari iritzirik eskatu, informazio nahikorik ez duelako A. Urrutiaren proposamenak. Horiek horrela, A. Urrutiari behin betiko txostena aurkezteko eskatu zaio. A. Urrutiak berretsi du bere eskaintza Gramatika batzordearen aurrean agertzeko eta azalpenak emateko.

Denbora aurrera doanez gero, eztabaida etetea eta hurrengo Osoko bilkuran segitzea erabaki da.

5. Eskuartekoak

5.1. Jean Haritschelharren hilberri txostena. J. Haritschelharren hilberri txostena egiteaz nor arduratuko den galdetu ondoren, Zuzendaritzak Beñat Oihartzabal euskaltzaina proposatzen du. Bileran ez dagoela eta, berari galdetzea erabaki da.

5.2. Espainiako sari nazionalak. Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Euskaltzaindiari modalitate bakoitzerako bina izen proposa dezan eskatu dio. Euskaltzaindiak bidali ditu proposamenak. Nolanahi ere, Ministerioak erabakiko du nor izendatzen duen.

5.3. Hitzarmenak

5.3.1. Editorial Iparragirre S.A.ren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren eranskina. Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan sinatu da, 2013ko

irailaren 11n. Horren bitartez Noticias Taldeak argitara ematen duen *Ortzadar* gehigarriaren testu-multzoa Lexikoaren Behatokiako baliatuko da.

5.3.2. Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko urteko hitzarmena.

Gaur Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko 2013ko hitzarmena izenpetu da, erakunde bien arteko harremana sendotzea helburu. Besteak beste, Euskaltzaindiak hizkuntzari buruzko aholkularitza emango dio Iruñeko Udalari; Akademiaren argitalpenen zenbait ale eskuraraziko dizkio eta kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu. Udalak, berriz, 2013 urtean 5.100 euro bideratuko dizkio Euskaltzaindiari laguntzat.

5.3.3. EiTB eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Urriaren batean EiTB erakundeak eta Euskaltzaindiak 2013-2016 aldirako lankidetza-hitzarmena izenpetuko dute. Horren bitartez EiTBko hedabideetan euskararen erabilera ona sustatuko da; kalitatezko euskara eredu estandarra, eta euskalkien aberastasuna bistartzen eta balioan jartzen lagunduko dute, hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran. Horretarako, EiTBk Euskaltzaindiko Hizkuntza Kalitatearen Behatokiaren laguntza eta lankidetza ukanen ditu.

Lankidetza-eremuak Hiztegi Batua eta Onomastika alorra izango dira, hor erabiltzen diren toponimo, exonimo, antroponimo eta abarri begira. Era berean, hizkuntzaren gramatika eta ahoskera ere zainduko dira. Lankidetza-hitzarmen hori tarteko dela, EiTBk 18.000 euro bideratuko dizkio Euskaltzaindiari.

5.3.4. EEPren eta Akademiaren arteko lankidetza-hitzarmenaren gehigarria. Urriaren 15ean Baionan Euskaltzaindiko ordezkartzan, EEPren eta Euskaltzaindiaren artean indarrean dagoen lankidetza-hitzarmenaren 2013ko gehigarria izenpetuko da. Horrela 140.000 euro bideratuko dizkio EEP erakundeak Euskaltzaindiari, 2013. urtean egingo dituen lanetarako.

5.4. Hurrengo bilkurak

Urriaren ez da Osoko bilkurarik izanen, urriaren 25a EAEn jai eguna da eta. Beraz, hurrengo Osoko bilkura azaroaren 29an egingen da, Zarautzen. Era berean, egun horretan Ageriko bilkura ere egingo da, *Basarri* bertsolari eta euskaltzain ohorezkoaren jaiotzaren mendeurrena gogora ekartzeko.

Azaroaren 15ean *Euskara Nafarroatik* izenburutzat dutela Euskaltzaindiak XVIII. Jagon jardunaldia egingen du Iruñean, Kondestablearen Jauregian, Jagon sailko Sustapen batzordearen eskutik.

6. Azken ordukoak. Azken ordukorik ez da egon.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 15:00ak direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria